Obra-hondakinen garraioa udal-agintarietara arautu ahal izango dute eta, edozein kasutan ere, hondakinak baimendutako zabor-tegietara bota beharko dira.

– Obra guztietan errespetatu beharko dira Udalak hesiei eta aldamierei buruz onartutako ordenantza espezifikoa.

40. artikulua. Azalera erabilgarria eta azalera eraikia. Sabai eraikigarria.

a) Etxebizitza edo lokal bakoitzaren azalera erabilgarri konputagarria: Pertsonak okupatu dezaketen esparru baten oinplano azalera da, kanpoaldearekin edo erabilera desberdineko beste lokal batzuekin dituen itxituren barrualdeak zehaztua, eta altuera libre jakin bat duena.

Hirigintza ondoreetarako edo eraikigarritasuna kuantifikatzeko, ez dira azalera erabilgarri konputagarritzat hartuko kanpoko espazio irekien (balkoiak, terrazak, logiak edo esekilekuak) lehen hamar metro karratuak etxebizitzako edo zuzkidura-bizitokiko. Hirigintzari lotutako baldintzak direla-eta, eraikuntza-profilak behartzen badu atikoko solairuak edo sakonera eraikigarri handiagoko solairu batzuen gainean beste solairuak egitera, kasu horietan etxebizitzari esleitutako kanpoko espazio horien azalera erabilgarria ez da zenbatuko.

Babes publikoko etxebizitzetan, kanpoko espazio irekien azalera erabilgarria (hala nola, balkoi, terraza, logia edo esekilekuek) ez da kontuan hartuko babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikaziorako.

Edozein esparrutako azalera erabilgarriaren zenbaketatik kanpo geratuko da honako elementu hauek oinplanoan okupatutako azalera: barruko itxitura finko zein mugikorrek, egitura-elementu bertikalek eta 100 cm²-tik gorako sekzio horizontala duten kanalizazioek edo garraio-hodiek.

Etxebizitza edo lokal berdinak badira eta eraikin beraren barruan zutabe bertikal batean antolatuta badaude, egitura-elementu bertikalek eta 100 cm² baino gehiagoko sekzio horizontala duten kanalizazioek edo garraio-hodiek oinplanoan okupaturiko azalera zenbatzeko orduan, kontuan hartuko da zutabeko behako solairuan eta goiko solairuan dauden etxebizitzari dagozkien balioen batez besteko aritmetikoa.

Etxebizitzak solairu bat baino gehiago badu, azalera gisa zenbatuko da barruko eskailerak okupatutako azalera.

Txapitula-erako geletan, pieza bakoitzerako eskatutako gutxienez azalera eta dimentsioak betetzearen eraginetarako, eraiki berriko edo birgaitutako etxebizitzetan ezingo dira azalera erabilgarri gisa zenbatu 2,20 m-tik beherako altuera duten azalera.

Garaje-plazaren azalera erabilgarria haren erabilera pribatiborako zehaztutako mugen barruan dagoena izango da.

Babes publikoko etxebizitzetan sustapen batean dauden garaje-plazei dagokienez, garaje-plaza bakoitzaren azalera erabilgarri konputagarria haren erabilera pribatiborako zehaztutako mugen barruan dagoena izango da, baina gehitu egingo zaio garaje-plaza bakoitzari barruko sarbide-arrapalen eta errodadura-erreen zati proportzionala, edozein izanda haren azalera erabilgarria, betiere gehienez 30 m²-raino konputatu ahal izango delarik.

Babes publikoko etxebizitza bati lotutako trastelekuen kasuan, itxitura-paramentuen eta trastelekuen bolumena zeharkatzen duen edozein elementu bertikalen arteko arean inskribatutako trasteleku-azalera ez da zenbatuko elementu horien arteko

– Se observarán las normas establecidas sobre el horario de carga y descarga, limpieza, apertura y relleno de zanjas, retirada de escombros y materiales de la vía pública y demás disposiciones aplicables de policía urbana.

– La retirada de escombros de la obra, deberá efectuarse por medio de canales o tolvas colocados en fachada, y el depósito de escombros en la vía pública se realizará en contenedores que deberán estar expresamente autorizados por el Ayuntamiento.

El transporte de los escombros podrá estar regulado por la autoridad municipal, y el vertido se realizará, en todos los casos, en los vertederos autorizados.

– Se respetarán en todas las obras las Ordenanzas específicas de vallados y andamios aprobadas por el Ayuntamiento.

Artículo 40. Referencia a las superficies útil y construida. Techo edificable.

a) Superficie útil computable de cada vivienda o local: Es la superficie en planta de un recinto ocupable por las personas, definido por la cara interior de sus cerramientos con el exterior o con otros locales de distinto uso, y que dispone de una altura libre determinada.

No tiene consideración de superficie útil computable a efectos urbanísticos o de edificabilidad la correspondiente a espacios exteriores abiertos, patios, balcones, terrazas, logias o tendedores, hasta un máximo de 10 m² construidos por vivienda o alojamiento dotacional. Cuando, por condicionantes urbanísticos, el perfil edificatorio obligue a plantas de ático o plantas situadas sobre otras plantas de mayor fondo edificable, la superficie útil de dichos espacios exteriores atribuidos a las viviendas correspondientes no se computará.

En viviendas de protección pública la superficie útil de los espacios exteriores abiertos, tales como balcones, terrazas, logias o tendedores no computará a los efectos de su calificación.

Del cómputo de superficie útil de cualquier recinto queda excluida la superficie ocupada en planta por los cerramientos interiores, fijos o móviles, por los elementos estructurales verticales y por las canalizaciones o conductos superiores a 100 cm².

Cuando se trate de viviendas o locales iguales y dispuestos en columna vertical dentro de un mismo edificio, para el cómputo de las superficies ocupadas por los elementos estructurales verticales y por las canalizaciones o conductos con sección horizontal superior a 100 cm², se tomará la media aritmética de los valores correspondientes a las viviendas situadas en plantas inferior y superior de la columna.

Cuando la vivienda se desarrolle en más de una planta, la superficie ocupada por la escalera se contabilizará como superficie.

En las estancias abuhardilladas, a efectos del cumplimiento de las superficies y dimensiones mínimas exigidas a cada pieza, en viviendas de nueva construcción o rehabilitación no podrán computarse como superficie útil mínima las superficies con altura inferior a 2,20 m.

La superficie útil de la plaza de garaje será la comprendida dentro de los límites definidos para su uso privativo.

En el caso de plazas de garaje que formen parte de una promoción de vivienda de protección pública, la superficie útil computable de cada plaza de garaje será la comprendida dentro de los límites definidos para su uso privativo, más la parte proporcional de carriles de rodadura y rampas de acceso interiores que corresponda a cada plaza, independientemente de su superficie útil, hasta un máximo computable de 30 m².

En el caso de trasteros vinculados a una vivienda de protección pública, no se computará la superficie de trastero inscrita en el área comprendida entre los paramentos de cierre y cualquier elemento vertical que atraviese el volumen del trastero cuando

distantzia 0,80 m-tik beherakoa denean. Distantzia 0,25 m baino txikiagoa bada, igeltsero-lanaren bitartez mugatu beharko da fisikoki.

b) Etxebizitza edo lokal bakoitzaren azalera eraikia: Eragiketa honen emaitza da: Azalera erabilgarriari gehitu egin behar zaizkio hormen, tabikeen eta itxituren azalera, eta elementu komunek betetzen duten azalaren zati proportzionala.

c) Azalera eraikia, eraikinaren solairuka: Eraikinaren solairu zehatz batean, bertako etxebizitzaren eta lokalen azalera eraikiak batuketara da.

d) Sabai eraikia edo eraikigarria, sestra gaineko eraikinetan: Eraikinaren solairu bakoitzean kanpoko mugen artean dagoen azalera atera, eta horien batuketara da.

Sabai eraikia edo eraikigarria zenbatzerakoan, honako espazio eta elementu hauen azalera sartzen dira:

– Hirigintza-Fitxetan, eraikinetako beheko solairua eta goiko solairuak deitu direnak.

– Hirigintza-Fitxetan teilatupeko guneak deitzen direnak, baldin eta fitxetan ezarritako erabilera nagusietarako badira eta 1,80 metrotik gorako altuera libre badute; halaber trastelektarako diren lokalak ere sartuko dira, baldin eta 15 m²(e) baino gehiagoko azalera erabilgarria badute lokal bakoitzeko.

– Baimendutako hegalkin itxiak.

Ondorengo gune hauek ez dira zenbakarri eta, beraz, ez dira zenbatuko:

– 1,80 metrotik beherako altuera libre duten gune estaliak eta itxiak.

– Erabilera publikoko portxeak.

– 1,50 metrotik gorako diametroko patioak eta instalazioetarako hodiak.

– Igogailuen zuloak.

– Bergarako Plan Orokorreko Ordenantzen 40.d) artikulua ezartzen du baimendutako hegalkin irekiek ez dutela konputatzen. Ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren 6. artikulua 5. puntuak ezartzen duena kontuan hartu da –Etxebizitzaren bizgarritasun-baldintzak errazte aldera, nagusiki bizitegi-erabilera diren eraikinetan, hirigintza-plangintzan ezarritako bolumen eta profil eraikiak edo eraikigarriak kanpoko espazio irekiak barne hartuko ditu, hala nola balkoiak, logiak, terrazak edo esekilekuak, eta eraikigarritasunaren ondorioetarako ez dira zenbatuko azalera erabilgarri edo eraikin horien lehen hamar metro karratuak etxebizitzako edo zuzkidura-bizitokiko – eta, horrenbestez, Ordenantzetako 53.b) artikulua (hegalkin irekiak arautzen dituen) aldatu egiten da.

e) Sabai eraikia edo eraikigarria, sestra azpian: Hirigintza-Fitxetan muga zehatz bat ezartzen bada, zenbatuko dena da kanpoko itxiturek edo hormek mugatuta dagoen eta sestra gaineko aprobetxamendurako baldintzak betetzen ez dituen gunea.

42. artikulua. Eraikinen bolumenari eta formari buruzkoak.

a) Eraikinaren altuera: Eraikin baten altuera neurtzeko, bi parametro erabiliko dira: altuera unitate metrikoetan, eta altuera solairu-kopurutan.

– Altuera unitate metrikoetan: Eraikin batean, lurretik gora doan zatia neurri bertikala da, unitate metrikoetan neurtuta.

Altuera hori bertikalki neurtzen da; hasi eraikinaren aurrealdean dagoen edo aurreikusita dagoen espaloiko, espazio publiko edo erreferentzia-puntuko sestratik gora, eta bizitegi-eraikinetan zenbatzen den azken solairuko sabaiaren forjatua azpiko alderaino. Industria-eraikinetan, goian, estalkiari eusten dioten habe nagusien azpialderaino neurtuko da.

La distancia de dichos elementos sea inferior a 0,80 m. Cuando la distancia sea inferior a 0,25 m se deberá delimitar físicamente con albañilería.

b) Superficie construida de cada vivienda o local: Es la que resulta de añadir a la superficie útil la de los muros, tabiques y cierres, y la parte proporcional de la superficie ocupada por los elementos comunes.

c) Superficie construida por planta en un edificio: Es la suma de la superficie construida de las viviendas y locales de esa planta concreta del edificio.

d) Techo edificado o edificable en un edificio sobre rasante: Es la suma de la superficie comprendida entre los límites exteriores de cada planta del edificio.

En el cómputo del techo edificado o edificable se incluye la superficie de los siguientes espacios y elementos:

– Las denominadas planta baja y plantas altas de los edificios en las Fichas Urbanísticas.

– Los denominados espacios bajo cubierta en las Fichas Urbanísticas destinados a los usos característicos fijados en las mismas que dispongan de una altura libre de más de 1,80 metros, o los que, destinados a trasteros, tengan una superficie útil mayor de 15 m²(u) por local.

– Los vuelos cerrados autorizados.

No tienen la consideración de espacios computables:

– Los espacios cubiertos y cerrados con altura libre menor de 1,80 metros.

– Los porches de uso público.

– Los patios y conductos de instalaciones de diámetro mayor de 1,50 metros.

– Los huecos de ascensores.

– El artículo 40.d) de las Ordenanzas del Plan General de Bergara establece que no computan los vuelos abiertos autorizados. Atendiendo a lo que establece el punto 5 del artículo 6 del Decreto 80/2022 de 28 de junio, de que, al objeto de favorecer la habitabilidad de las viviendas, en los edificios de uso predominantemente residencial, el volumen y el perfil edificado o edificable establecido en el planeamiento urbanístico, debe incluir espacios exteriores abiertos tales como balcones, logias, terrazas o tendedores que no computen edificabilidad hasta una superficie útil o construida máxima de 10 m² por vivienda o alojamiento, se modifica el artículo 53.b) de las Ordenanzas referido a la regulación de los vuelos abiertos.

e) Techo edificado o edificable bajo rasante: Cuando se establezca en las Fichas Urbanísticas un límite específico, se computará como tal la totalidad del espacio limitado por los cierres o muros exteriores que no reúnan las condiciones para su consideración como aprovechamiento sobre rasante.

Artículo 42. Referencias al volumen y forma de los edificios.

a) Altura del edificio: La altura de un edificio se medirá en base a dos parámetros como son la altura en unidades métricas y la altura en número de plantas:

– Altura en unidades métricas: Se considera la dimensión vertical de la parte del edificio que sobresale del terreno medida en unidades métricas.

La altura, a la que se hace referencia, es la que resulta de la medición vertical entre la rasante de la acera, espacio público o punto de referencia existentes o previstos a los que da frente el edificio y la cara inferior del forjado del techo de la última planta que se contabiliza en los edificios residenciales. En los edificios industriales la medición se realizará hasta la parte inferior de las vigas principales que soportan la cubierta.

Eraikinean, neurketa egingo da aurrealdean bide edo espazio publikoa duen fatxadaren erdigunean. Bizitegi-eraikinetan, fatxadak tarteka hartuta egingo da, eta gehienez ere hogeita lau metro luze izango dute tartekok. Ertzean egon, bi kaletara eman eta sestra ezberdinak dituzten eraikinetan, sestra altuena duen kalean sortzen den altuera luzatu ahal izango da aldameneko fatxadara, gehienez ere hamabost metro luze.

– Altuera solairu-kopurutan: Bide edo espazio publikoaren erreferentzia-kota edo sestraren gainetik dauden solairuen kopurua da. Solairuak zenbatzerakoan, beheko solairua ere sartzen da, beste bat bezala. Patioen neurriak ezartzeko orduan, solairuen kopurua zehazterakoan, teilatupeko solairua ere solairutzat hartuko da eta besteak bezala zenbatuko da.

b) Gehieneko altuera: Eraikinetan, plangintzak ezarri duen altuera-mugaren balioa. Altuera ezartzerakoan, aurreko puntuan adierazitako neurri-unitate bietan ezarri bada, biak errespetatu beharko dira aldi berean, gehienez onar daitezkeenak diren aldetik.

Altuerako baldintza ezartzerakoan, gehienekoa besterik ez bada adierazten, altuera hori agortu gabe eraiki ahal izango dela ulertuko da. Kasu berezietan, Udalak gehieneko altuera hartzerantz derrigortu ahal izango du, irudi urbano zehatz bat mantentzeko edo lortzeko beharrezkoa dela irizten diotenean.

c) Gehieneko altueratik gorako eraikinak: Ezarritako gehieneko altueratik gora, orokorrean, honakoak eraiki ahal izango dira:

– Estalkiaren isurkiak: Estalkietako atal maldadunak dira, isurialdeak. Isurkien maldak ezingo du inolaz ere gainditu % 35a, eraikinaren edozein fatxadatik hartuta, salbu eta honako kasu honetan: estalkiaren oinplanoaren forma irregularra bada, % 35a oinarritzat hartuko da isurki nagusietarako eta, horrenbestez, beste isurkiren batean malda handiagoa egon ahalko da.

– Instalazioetarako elementu teknikoak: Horrela deitzen ditugu eraikina osatzen duten zati komunak, hala nola, eskailera-kaxa errematatzeko atalak, igogailuen kasetak, tximiniak, aireztapeneko hodiak, hozteko sistemak, argi-zuloak, irrati-telebistarako antenak, tximistorratzak, eguzki-plakak eta plaka fotovoltaikoak, eta horien pareko beste batzuk.

– Elementu apaingarriak: Gehieneko altueratik gora onar daitezke fatxaden edo estalkien elementu apaingarriak eraikitzea, hala nola barandak eta beste batzuk, baldin eta ez badute 1,20 metrotik gorako altuerarik eta ez badute gune itxirik sortzen.

– Dorretxoak: Dorretxo deitzen ditugu estalkiaren profiletik kanpo irtenda, eraikin berezietako puntu batzuetan eraiki daitezkeen atalak; etxadi eraikigarrietako ertzak edo erremateak eratzen dituzten eraikinetan ere egin daitezke. Area eta Sektore bakoitzaren Hirigintza-Fitxan, edo plangintza xehatuan, berariaz jaso beharko da dorretxoak eraikitzeak aukera dagoela. Horien erabilerak eta gehieneko neurriak dagokion ordenantzan zehazten dira.

d) Pisuen altuerak: Pisuaren altuera da elkarren segidako bi solairuren forjatuen gainaldeen arteko distantzia bertikala, edo baita zola baten goialdetik solairu hori estaltzen duen forjatua goialderaino doana ere.

e) Pisuaren altuera librea: Solairu batean, zoladura bukatuaren goialdetik forjatua azpialderaino doan distantzia bertikala; forjatua barne hartzen da sabaiaren estaldura edo sabai izuna, balego.

f) Solairua: Azalera horizontal, erabilgarri eta estalitakoa da, bertan jardueraren bat garatu ahal izateko egokitu dena. Eraikinean duten tokien arabera, honako solairu-motak bereiz daitezke:

– Beheko solairua: Hau da solairuko sestra-kota eraikinaren erreferentzia-kotarekin bat baldin badator nabarmen, ehuneko hirurogeitik gora.

La medición se realizará en el punto medio de la fachada del edificio que da frente a la vía o espacio público. En los edificios residenciales se realizará en tramos de fachada con una longitud máxima de veinticuatro metros. En edificios en esquina a dos calles con distintas rasantes, la altura que resulte para la calle de rasante más alta se podrá prolongar a la fachada contigua en una longitud máxima de quince metros.

– Altura en número de plantas: Es el número de plantas por encima de la cota de referencia o de la rasante de la vía o espacio público. En la medición del número de plantas se incluye la planta baja como una planta más. En el cómputo del número de plantas a efectos del dimensionado de los patios, la planta bajo cubierta tendrá la consideración de una planta como el resto de las inferiores.

b) Altura máxima: Es la señalada por el planeamiento como valor límite de la altura del edificio. Cuando se establezca la altura en las dos unidades de medición señaladas en el punto anterior, ambas deberán respetarse simultáneamente como máximas admisibles.

En los casos en los que se señale como condición de altura solamente la máxima, se entenderá que es posible edificar sin agotarla. En casos puntuales, el Ayuntamiento podrá obligar a alcanzar la altura máxima cuando se entienda necesario para mantener o conseguir una determinada imagen urbana.

c) Construcciones por encima de la altura máxima: Por encima de la altura máxima señalada, podrán admitirse con carácter general las siguientes construcciones:

– Vertientes de la cubierta: Se trata de los faldones inclinados de las cubiertas. La pendiente de los faldones no podrá ser en ningún caso mayor del 35 % desde cualquiera de las fachadas del edificio a no ser que, debido a la forma irregular de la planta de la cubierta, tomando como base la pendiente máxima señalada del 35 % para los faldones principales resulte una pendiente mayor para alguno de los otros faldones.

– Elementos técnicos de las instalaciones: Bajo esta denominación se incluyen las partes integrantes comunes del edificio tales como, cuerpos de remate de la caja de escaleras, casetas de ascensores, chimeneas, conductos de ventilación, sistemas de refrigeración, claraboyas, antenas de radio y televisión, pararrayos, placas solares y fotovoltaicas y otros asimilables.

– Elementos ornamentales: Por encima de la altura máxima podrá admitirse la construcción de elementos ornamentales de las fachadas o cubiertas, como barandillas y otros, con una altura máxima de 1,20 metros, y siempre que no suponga la creación de un espacio cerrado.

– Torreones: Se denominan torreones los cuerpos salientes con respecto del perfil de la cubierta que puedan construirse en puntos de edificios singulares o en edificios que conformen las esquinas o remates de las manzanas edificables. Las Fichas Urbanísticas de las distintas Áreas y Sectores, o el planeamiento pormenorizado, deberán recoger expresamente la posibilidad de su construcción. Las dimensiones máximas y usos se detallan en la Ordenanza correspondiente.

d) Alturas de piso: Se entiende por altura de piso la distancia vertical entre las dos caras superiores de los forjados de dos plantas consecutivas, o entre la cara superior de una solera y la superior del forjado que cubre dicha planta.

e) Altura libre de piso: Es la distancia vertical entre la cara superior del pavimento terminado de una planta y la cara inferior del forjado incluido el revestimiento del techo de la misma planta o del falso techo si lo hubiera.

f) Planta: Es toda superficie horizontal practicable y cubierta acondicionada para desarrollar en ella una actividad. En función de su posición en el edificio se consideran los siguientes tipos de plantas:

– Planta baja: Es aquella en la que la cota rasante coincide sensiblemente en más de un sesenta por ciento con la cota de referencia del edificio.

– Erdisotoko solairua: Honetan, zola-oina, eraikitako azalera ehuneko hirurogeian baino gehiagoan, beheko solairurako ezarri den sestra-kotaren azpitik dago; eta sabai-oina, berriz, kota horren gainetik. Erdisotoetako zoladuraren sestra-kota ezingo da egon eraikinaren erreferentzia-kota baino 1,30 metro azpitik.

– Sotoko solairua: Sotoko solairua beheko solairuaren azpian edo erdisotoko zein beste soto bateko solairuen azpian dago. Hauen guztien fatxaden altuerak 1,20 metrokoa edo txikiagoa izan beharko du perimetroaren % 40an baino luzeagoan. Baldintza hori bete ezean, erdisotoko solairutzat hartuko da.

– Solairuartea: Beheko solairu batean, batzuetan zoladura eta sabai-oinen artean eraiki daitekeen solairua da. Hauen azalera zenbatu egin beharko da eraikinen azalera erabilgarri eta eraikien artean, eta baita sabai eraikigarri bezala ere, plangintza xehatuak horrela ezarri gero.

– Goiko solairua edo pisuko solairua: Beheko solairuko saibaiaren forjatu gainean dagoena da.

– Atiko-solairua: Eraikin baten azken solairua da, baldin eta eraikitako azalera gainontzeko solairuenak baino txikiagoa bada, eta solairuaren fatxada-plano guztiak edo baten bat atzera emanda badaude (badago), eraikinaren fatxada-planoekin aldekatuta.

– Teilatupeko solairua: Malda duten estalkien kasuetan, azken solairuko goialdeko azalera eta estalkiaren osagarri diren isurkiek eratzen duten solairua.

g) Gorputz irtenak: Fatxadako planoetatik ateratzen diren elementu bizigarri edo okupagarriak dira. Gorputz irtenak hone-lakoak izan daitezke:

– Gorputz irten itxiak: Alde guztietan itxitura finkoak dituztenak, eta ez desmuntagarriak.

– Gorputz irten irekiak: Gutxienez eraikinaren fatxadarekin paraleloan dagoen itxitura irekia dutenak.

h) Elementu irtenak: Fatxada-planoetatik ateratzen diren eta ez bizigarri ezta okupagarri ere ez diren elementuak. Honelakoak izan daitezke:

– Elementu irten iraunkorrak: Eraikuntzaren ikuspuntutik, eraikinaren osagarriak direnak, hala nola, zokaloak, pilastrak, teilatu-hegalak, gargolak, markesinak eta beste antzeko batzuk.

– Elementu irten ez-iraunkorrak: Ez dira eraikinaren osagarri, baina fatxadetan erantsi daitezke, hala nola, olanak, errotiluak, iragarkiak.

i) Patioak: Eraikinean dauden lekuaren arabera, honako patio-motak bereizten dira:

– Etxadiko patioak: Etxadi bat osatzen duten eraikinak argitu eta aireztatzeko aurrekusi den eraiki gabeko gunea da. Ordenantza hauen 56. artikulua ezartzen dituen baldintzak bete beharko dira.

– Partzela-patioak edo argi-patioak: Eraikinaren bolumenaren barruan, eraikina argitzeko edo aireztatzeko aurrekusi den eraiki gabeko gunea da.

– Patio mankomunatuak: Partzela-, argi- edo aireztapen-patioak bi eraikin mugakideren zerbitzurako izan daitezke aldi berean. Halakoetan, patio mankomunatuak deitzen ditugu. Eta horiek baimendu ahal izateko, ezinbestean egiaztatu beharko da zortasun mankomunatu bat eratuta dutela eraikinak kokatzen diren bi finken artean; zortasun hori Jabetza Erregistroan inskribatuko da, eta ukaezina edo erostezina izango da bi finketatik baten batek eraikita dirauen bitartean.

44. artikulua. Bizitegi-erabileretarako eraikinak.

Eraikin hauetan erabilera nagusia etxebizitzakoa da. Eraikin hauetako solairukako erabilera orokorrak honakoak izango dira

– Planta de semisótano: Es aquella en la que más de un sesenta por ciento de la superficie edificada tiene el plano del suelo a cota rasante inferior a la que se define para la planta baja, y el plano del techo por encima de dicha cota. El pavimento de los semisótanos no podrá estar a cota rasante inferior a 1,30 metros de la cota de referencia del edificio.

– Planta de sótano: Se entiende por planta de sótano la situada bajo una planta baja, una planta de semisótano u otro sótano. Su altura de fachada será en todos los casos igual o inferior a 1,20 metros en más del 40 % de su perímetro. En caso de no cumplir esta condición se considerará planta semisótano.

– Entreplanta: Se define como entreplanta la planta que, en algunos casos, puede construirse entre los planos del pavimento y techo de una planta baja. Su superficie se contabilizará dentro de las superficies útiles y construidas de los edificios, y como techo edificable cuando así lo considere el planeamiento pormenorizado.

– Planta alta o planta de piso: Es la situada por encima del forjado del techo de la planta baja.

– Planta de ático: Última planta de un edificio, cuando su superficie edificada es inferior a la de las restantes plantas y todos los planos de fachada que conforman la planta o alguno de ellos se encuentra retranqueado respecto de los planos de fachada del edificio.

– Planta bajo cubierta: Es la resultante entre la cara superior de la última planta y los faldones que conforman la cubierta en los casos de cubiertas inclinadas.

g) Cuerpos salientes: Son los elementos habitables u ocupables que sobresalen de los planos de fachada. Los cuerpos salientes pueden ser:

– Cuerpos salientes cerrados: Los que disponen en todos sus lados de cerramientos fijos, no desmontables.

– Cuerpos salientes abiertos: Son los que tienen abierto al menos el cierre paralelo a la fachada del edificio.

h) Elementos salientes: Son los elementos no habitables ni ocupables que sobresalen de los planos de fachada. Pueden ser:

– Elementos salientes permanentes: Son los que, desde el punto de vista constructivo, son elementos integrantes del edificio tales como los zócalos, pilastras, aleros, gárgolas, marquesinas y otros similares.

– Elementos salientes no permanentes: Son aquellos elementos no integrantes del edificio y que pueden adosarse a las fachadas como son los toldos, rótulos, anuncios.

i) Patios: Se distinguen los siguientes tipos según su situación respecto del edificio:

– Patios de manzana: Adquiere tal denominación el espacio no edificado destinado a dar luces y ventilación al conjunto de edificios que conforman una manzana. Cumplirán las condiciones que establece el artículo 56 de las presentes Ordenanzas.

– Patios de parcela o de luces: Se trata de los espacios no edificados dentro del volumen de los edificios, y destinados a dar iluminación o ventilación a los mismos.

– Patios mancomunados: Los patios de parcela o luces y los de ventilación pueden servir simultáneamente a dos edificios colindantes. En este caso se denominan patios mancomunados, y para que puedan ser autorizados, será indispensable que se acredite la constitución de una servidumbre de mancomunidad entre las dos fincas en las que se ubiquen los edificios, que será inscrita en el Registro de la Propiedad y será irrenunciable o irremisible mientras esté edificada alguna de las dos fincas.

Artículo 44. Edificios destinados a usos residenciales.

Son aquellos en los que el uso predominante es el de vivienda. En estos edificios, los usos generales en las distintas plan-

-betiere area eta sektore bakoitzerako Hirigintza-Fitxetan berriaz ezarritako mugen menpe-:

a) Sotoko solairua: Honako hauek izateko erabili ahal izango da: ibilgailuen garajea eta etxebizitzaren instalazio osagarriak; etxebizitzari erantsitako trastelekuak; beheko solairuko lokalei erantsitako guneak -baldin eta zuzenean komunikatuta badaude, unitate funtzional eta erregistratutako bakar bat eratzen badute eta lokalean garatzen den jardueran erabiltzen diren salgaiak edo tresnak gordetzeko edo biltegitzeko bada-; eta inoiz ere ezingo da izan jendearentzako saltokia, edo ezta pertsonak bertan luze egotea dakarten beste erabilera batzuetarako, hala nola, ekitaldi-aretoak, erakusketa-tokiak, jaialdi-aretoak, ezta beste batzuk ere; eraikinaren instalazio teknikoetarako ere izan daiteke.

Aipatutako erabilera guztiak eta beste pareko batzuk baimendu ahal izango dira baldin eta Hirigintza-Fitxek bizitegi-eraikineta-arako ezartzen dituzten gutxienezko garaje-plazaren estandarrek bete badira.

b) Erdisotoko solairua: Hemen onartuko eta debekatuko diren erabilera sotoko solairurako finkatu diren berberak dira.

c) Beheko solairua: Irizpide orokor gisa, hemen sar daitezke Plan Orokor honen 15. artikuluko J-2 puntuan aipatutako hirugarren sektoreko erabilera. Halaber sartzen dira, dagokion Hirigintza-Fitxak onartzen duen kasuetan, artikuluko bereko G puntuan aipatutako bizitegi-erabilera, 1. eta 2. kategoriako industria-erabilera, F puntuan azaltzen diren dotazioetako eta komunitate-ekipamenduko erabilera, eta garaje-erabilera.

Hirugarren sektoreko, baimendutako industrietako eta dotazio zein ekipamenduko erabilera lokaletan, jendearentzako arreta-gunea bereizi beharko da. Gune horretan honako gela guztiak sartzen dira: merkataritzako hartu-emanen gertatzen den tokia, jendeak produktuak hartzeko edo gestioak egiteko tokia, hala nola, mostradoreak, bitrinak, etab., edo langileak zein jendea egoteko edo pasatzeko tokia.

Lokal batzuetan, garatzen den jardueragatik atea derrigorrez kanpoaldera zabaldu behar bada, fatxada-lerrotik barrurantz eraman beharko da, irekitzerakoan bide publikoa oztopatu edo har ez dezan.

Orokorrean onargarritzat hartutako erabilera horiek guztiak area eta sektore bakoitzaren Hirigintza-Fitxan zehaztu dira.

d) Goiko solairuak: Etxebizitza-erabilera dira. Area eta sektoreetako Hirigintza-Fitxetan, kasu zehatz batzuetan, aukera ematen da lehenengo solairuan hirugarren sektoreko, dotazio zein komunitate-ekipamenduko erabilera batzuk garatzeko.

Etxebizitza baten erabilera ez da aldatuko horren titularrak edo bertan bizi denak bulego edo estudio profesionala jartzeagatik, etxebizitza-erabileraekin partekatuta.

e) Teilatupea edo estalkipeko espazioa: Artikulu hau aldatu egin zen Bergarako Udalak 2012/10/10ean egindako osoko bilkuran behin betiko onartutako Plan Orokorren 1. aldaketan (2012/12/17ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuta).

Erabilera: Teilatupeko guneetan jarri ahal izango dira eraikineko instalazioen elementu teknikoak, hala nola, igogailu-makinak, geldara-gelak edo hozteko dorreak eta instalazioen kontagailuen gelak. Gelditzen diren gainontzeko guneetan, trastelekuak egokitu ahal izango dira. Horrelakoetan, trastelekuak eraikin bereko etxebizitzari erantsitakoak eta erregistroan banaezinak izan beharko dira, eta bakar-bakarrik erabili ahal izango dira etxebizitzetan bizi direnen tresnak gorde edo biltegitzeko.

Eraikinaren teilatupeetan etxebizitza-erabilera ere baimenduko da, baldin eta azpian duen solairuko etxebizitzarekin edo etxebizitzekin fisikoki lotuta badago eta Jabetza Erregistroan inskribatuta badago etxebizitzaren elementu erantsi eta banaezin gisa.

tas, sujetos en todos los casos a las limitaciones que se establecen para cada Área y Sector en particular en las Fichas Urbanísticas, serán los siguientes:

a) Planta de sótano: Podrá destinarse a garaje de vehículos y a instalaciones complementarias a las viviendas; a trasteros anejos a las viviendas; a espacios anejos a los locales en planta baja, siempre que están directamente comunicados con ellos formando una unidad funcional y registral y cuyo destino sea el depósito o almacenamiento de mercancías y enseres utilizados en la actividad que se desarrolla en el local, pero nunca al despacho al público u otras utilidades que conlleven la estancia continuada de personas, como salas de actos, salas de exposiciones, salas de fiestas etc.; también a instalaciones técnicas del edificio.

Todos los usos señalados u otros asimilables podrán autorizarse siempre que se hayan cubierto los estándares que se señalan como mínimos de plazas de garaje en edificios residenciales en las Fichas Urbanísticas.

b) Planta de semisótano: Los usos permitidos y los prohibidos serán los mismos que se han fijado para la planta de sótano.

c) Planta baja: Como criterio general, podrán tener cabida los usos terciarios señalados en el punto J-2 del artículo 15 del presente Plan General. También, cuando se permite en la correspondiente Ficha Urbanística, los usos residenciales especificados en el punto G del mismo artículo, los usos industriales en las categorías 1.ª y 2.ª, los usos dotacionales y de equipamiento comunitario que se señalan en el punto F, y el uso de garaje.

En los locales destinados a usos terciarios, usos industriales autorizados y usos dotacionales y de equipamiento se distingue, el área de atención al público, que incluye todas las piezas en las que se produce el intercambio comercial o en las que el público accede a los productos o a la realización de gestiones, tales como mostradores, vitrinas etc., o a la estancia y paso de trabajadores y público.

En aquellos locales que por la actividad que se desarrolla, se exija la apertura de la puerta hacia el exterior, se retirará la misma hacia el interior respecto de la línea de fachada de forma que no invada la vía pública al abrirse.

Todos estos usos señalados como usos posibles a nivel general se concretan en la Ficha Urbanística de cada Área y Sector.

d) Plantas altas: Se destinan al uso de vivienda. En las Fichas Urbanísticas de las distintas Áreas y Sectores se admite, en la planta primera y en casos concretos, la posibilidad de algunos usos terciarios, dotacionales y de equipamiento comunitario.

No se entenderá alterado el uso de vivienda por el hecho de que el titular o persona que habite en la misma, pueda instalar un despacho o estudio profesional compartido con el uso de vivienda.

e) Espacio bajo cubierta: artículo modificado en la Modificación 1.ª del Plan General aprobada definitivamente por el Ayuntamiento de Bergara en sesión plenaria celebrada el 10/10/2012 y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa del 17/12/2012.

Usos: En los espacios bajo cubierta se podrán ubicar los elementos técnicos de las instalaciones del edificio como cuartos de máquinas de ascensores, cuartos de calderas o torres de refrigeración y cuartos de los contadores de las instalaciones. En el resto de los espacios resultantes se podrán habilitar trasteros anejos e inseparables registralmente de las viviendas del mismo edificio y destinados exclusivamente al depósito o almacenamiento de enseres de los moradores de las mismas.

También se autorizará el uso de vivienda, en los espacios bajo cubierta de los edificios, debiendo estar ligados físicamente a la vivienda o viviendas de la planta inmediata inferior, e inscritos en el Registro de la Propiedad como elementos anejos e inseparables de las mismas.

Ez dira legeztatuko teilatupean elementu independente gisa dauden etxebizitzak baldin eta Plan Orokorren bitartez berritzen diren Planeamenduko Arau Subsidiarioak behin betiko onartu ziren datatik aurrera hiri-lurraren kontribuzioan alta eman eta Jabetza-Erregistroan inskribatu badira. Edozein kasutan ere, lehendik dauden etxebizitzak legalizatu ahal izateko, Plan Orokorrean jasotzen diren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak bete beharko dituzte.

Halaber, teilatupeko guneak honelako kasuetan ere legeztatu ahal izango dira etxebizitza independente gisa:

* Gaur egun trasteleku-edo ganbara-erabilera duten teilatupeko guneak, baldin eta Planeamenduko Arau Subsidiarioen onarpenaren aurrekoak badira (1996ko apirilaren 16a) eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

– Sarbide egokia izatea, eskailera bidez. Eskaileraren pasaguneak gutxienez 90 cm-ko zabalera librea izan beharko du, eta eskailera-mailen neurriak Ordenantza hauen 66. artikuluko b) puntuan zehaztutakoak izango dira.

– Estalkirako sarbide zuzena eta egokia ahalbideratzea komunitateko goreneko eskailera-burutik.

– Teilatupeak ezaugarri egokiak izan beharko ditu, Ordenantza hauetako Bizigarritasun-Baldintzak (57-62 artikulua) bete eta bitokia egoki atontzeko modukoak.

– Eraikinak teilatupeko espaziora iristen ez den igogailua bada, ibilbidea luzatu beharko da solairu horretako etxebizitzari zerbizua emateko.

Teilatupeak legeztatzeko, ezinbestekoa izango da udal zerbitzu teknikoek adierazitako baldintzak betetzen diren aztertzea eta aldeko txostena egitea.

* Eraikin berrrietako teilatupeak, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

– Plangintza orokorraren edo garapeneko plangintzaren arabera, bazter egiten duten eraikinetan edo eraikin exentuetan alboko fatxadek bi isurkiko estalkian bukatzea ahalbideratzen badute, hau da, teilatu-hegal horizontalik gabe.

– Teilatupeko guneetako alboko fatxadetan bao irekiak egin ahal badira, eta bao horiek gutxienez bost metro zabal duten espazio publikoetara edo lorategietara ematen badute.

– Teilatupeko guneak etxebizitza gisa egokitze moduko ezaugarriak izan behar ditu, eta nolahi ere kasu guztietan Ordenantza hauetako Bizigarritasun Baldintzak bete beharko ditu (57-62 artikulua). Etxebizitza hauetan, egongela-jangelako edo sukalde-egongela-jangelako piezak, gutxienez ere, aireztatze eta argitzeko bao ireki bat izan beharko du, eta bao horrek aurretik aipatu diren argiztatze- eta aireztatze-baldintzak betetzen dituen espazio publiko edo lorategi batera emango du.

52. artikulua. Pisuen altuerak eta altuera libreak.

Babes-mailaren bat duten eraikinak direlako Hirigintza-Fitxetan berariaz adierazitako kasuetan izan ezik, beste guztietan, pisuen altuerak eta dagozkien neurketa-irizpideak honakoak izango dira:

a) Sotoko eta erdisotoko solairua: Gutxieneko altuera librea: 2,50 metro. Eta edozein kasutan ere, sotoko eta erdisotoko sabaiko egiturako edo instalazioetako elementu irtenetako puntu baxuenak ere altuera libreko 2,20 metrotik gora egon beharko dira gutxienez.

b) Beheko solairua eta solairuarteak: Pisuaren gehieneko altuera, hau da, forjatuen goialdeen edo zola eta forjatuen goialdeen artekoa, eraikinaren erdigunean, 3,80 metrokoa izango da, ez bada berariaz beste altuerarik ezartzen Hirigintza-Fitxetan edo antolamendu xehatuko plangintzan.

No se admitirá la legalización de aquellas viviendas existentes en los espacios bajo cubierta como elementos independientes dados de alta a efectos de la contribución urbana, e inscritos en el Registro de la Propiedad con posterioridad a la fecha de aprobación definitiva de las Normas Subsidiarias de Planeamiento que se revisan a través del Plan General. En cualquier caso, para la legalización de las existentes deberán cumplir las condiciones mínimas de habitabilidad que recoge el Plan General.

También se podrán legalizar como viviendas independientes los espacios bajo cubierta en los siguientes casos:

* Espacios bajo cubierta con uso actual de trastero o desván y existentes con anterioridad a la aprobación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento (16 de abril de 1996) que cumplan con las siguientes condiciones:

– Disponer de acceso adecuado mediante escalera que cuente con un ancho mínimo libre de paso de 90 cm, y las dimensiones de peldaños que establece el punto b) del artículo 66 de las presentes Ordenanzas.

– Posibilitar el acceso directo y adecuado a la cubierta desde el rellano común del último tramo de escalera.

– El espacio bajo cubierta deberá tener las características adecuadas que permitan su transformación cumpliendo en todos los casos las Condiciones de Habitabilidad (artículos 57-62) de las presentes Ordenanzas.

– En el caso que el edificio disponga de ascensor que no lleve al espacio bajo cubierta, se deberá prolongar su recorrido para dar servicio a la vivienda de dicha planta.

Para su legalización, deberán contar en todos los casos con informe previo favorable emitido por los servicios técnicos municipales que analizará el cumplimiento de las condiciones señaladas.

* Espacios bajo cubierta en los edificios de nueva construcción que cumplan las siguientes condiciones:

– Que el planeamiento general o de desarrollo permita resolver las fachadas laterales en los edificios en esquina o exentos con la cubierta a dos aguas, es decir, no con alero horizontal.

– Que en las fachadas laterales de los espacios bajo cubierta se puedan habilitar huecos abiertos a un espacio público o jardín que cuente con un ancho mínimo de cinco metros.

– El espacio bajo cubierta deberá tener las características adecuadas que permitan su habilitación como vivienda cumpliendo en todos los casos las Condiciones de Habitabilidad (artículos 57-62) de las presentes Ordenanzas. En estas viviendas, la pieza del estar-comedor o cocina-estar-comedor, deberá disponer mínimamente de un hueco de ventilación e iluminación abierto a un espacio público o jardín que cumpla las condiciones de iluminación y ventilación señaladas anteriormente.

Artículo 52. Alturas de piso y alturas libres.

Salvo en los casos en los que expresamente se señala en las Fichas Urbanísticas por tratarse de edificios con algún nivel de protección, las alturas de pisos con los correspondientes criterios de medición, serán los siguientes:

a) Planta de sótano y semisótano: Altura libre mínima: 2,50 metros. En ningún caso, el punto más bajo de los elementos salientes de la estructura o instalaciones en el techo del sótano o semisótano podrá reducir la altura libre de los mismos a menos de 2,20 metros.

b) Planta baja y entreplantas: La altura máxima de piso, es decir entre caras superiores de forjados o solera y forjado, y en el centro del edificio, será de 3,80 metros, excepto en los casos en los que expresamente se establezca otra altura en las Fichas Urbanísticas o en el planeamiento de ordenación pormenorizada.

Guxieneko altuera libre 3,00 metrokoa izango da. Baldin badira honelako gela osagarriak, hau da, biltegiak, trastelekuak edo jendearentzako saltokira zabaltzen ez diren komunak, gutxieneko altuera libre 2,30 metrora jaitsi ahal izango da.

Lehendik dauden eraikinetako beheko solairuko lokaletan eta lokal berrietan, baldin eta antolamendu xehatuko plangintzak bertan Solairuarreak eraikitzea ahalbideratzen badu, honako baldintzak errespetatu beharko dira:

– Solairuarreak lokalean har dezakeen gehieneko azalera izango da lokalak beheko solairuan duen azalera guztiaren % 50a.

– Ezingo dute sarbide independenterik izan eraikinaren elementu komun batetik, eta ezta erregistro-unitate independente bat eratu dezakeen beste inongo finkatatik ere.

– Solairuarreaken aurrealdea atzeraemanda joan beharko da, fatxada-lerroaren barrualdearekiko: gutxienez 2,50 metro.

– Gutxieneko altuera libre, solairuarreaken azpian dagoen lokal-zatian: 2,50 metro.

– Gutxieneko altuera libre, solairuarreak zoladura bukatuaren eta lokalaren sabai bukatuaren artean: 2,30 metro. Egituran edo instalazioetan elementu zintzilikariak egonez gero, puntu bakanen batean altuera libre 2,20 metrora jaitsi ahal izango da.

– Solairuartera joateko eskailerak gutxienez 1,00 metro zabal izan beharko dira eta, mailagaineko zabalerari nahiz mailarteko altuerari dagokionez, bizitegiko eraikinetako eskailera arruntak dituzten baldintzak beteko dituzte. Eskailerak lokalean lan egiten dutenek bakarrik erabitzen badituzte, hau da, publikoak ez baditu erabiltzen, gutxieneko zabalerari 0,90 metrora jaitsi ahal izango da, eta tarte zuzenetan mailarteko gehieneko altuera 0,19 metrokoa izango da eta mailagaineko gutxieneko zabalerari 0,25 metrokoa. Bihurguneko edo konpentsatutako tarteetan, berriz, mailarteko altuera berdina izango da baina mailagaina gutxienez 0,25 metro zabal izango da, ardatzean neurtuta, eta gutxienez 0,05 metro izan beharko du alde estuenean.

c) Goiko solairuak: Eraikin berrietan, Hirigintza-Fixetan berriaz azalduetako kasuetan izan ezik, honako altuerak errespetatu beharko dira:

– Pisuaren gutxieneko altuera (solairu bateko forjatuaren goialdetik gainera solairuko forjatuaren goialdera): 2,90 metro.

– Gutxieneko altuera libre: 2,50 metro. Honakoetan 2,30 metrora jaitsi ahal izango da: komun, bainugela, pasillo, atondo, armairu-gela, trasteleku eta jendea luze egoteko ez diren beste leku batzuetan. Salbuespen gisa, 2,50 metroko bizitegi-gelen altuera 2,30 metrora jaitzi ahal izango da gela horietarako eskatzen den gutxieneko azalera erabilgarriaren oinplanoko okupazioaren % 10ean, baldin eta instalazio batzuk igartzeko beharrezkoa bada.

d) Teiltupeko solairua: Etxebizitza-erabilerarako teiltupeko solairuan, sabai eraikigarritzat 1,80 metrotik gorako altuera duena besterik ez da zenbatuko. Txapitula erako espazioak onartuko dira, baldin eta gela horretarako eskatzen den gutxieneko azalera erabilgarri osoan betetzen badira espazio edo gela mota horretarako aurrez aipatutako altuera-baldintzak, eta baita 2,50 m eta 1,50 m arteko altuera duen azalera -oinplanoan- gelaren azalera erabilgarriaren % 30etik gorakoa ez bada.

53. artikulua. Gorputz irtenak.

Bizitegitarako eraikin berrietan gorputz irtenak eraiki ahal izango dira, irekiak nahiz itxiak, betiere lehenengo solairutik aurrera. Gorputz irtenak espaloi edo espazio publikoen gainean proiektatzen badira, hegalkinarekin azpialdea gutxienez 3,00 metroko altueran egongo da espaloi edo espazio publiko horien gainean. Gorputz irtenek, gainera, honako muga hauek izango dituzte:

La altura libre mínima será de 3,00 metros. En el caso de tratarse de dependencias complementarias destinadas a almacén, trasteros o aseos no abiertos al despacho público, podrá reducirse la altura mínima libre a 2,30 metros.

En los locales de planta baja de los edificios existentes y en los nuevos locales en los que, a través del planeamiento de ordenación pormenorizada se posibilite la construcción de Entrepuntas, se respetarán las siguientes condiciones:

– La superficie máxima de ocupación del local por la entreplanta será el 50 % del total de su superficie en planta baja.

– No podrán tener acceso independiente a un elemento común del edificio o a otra finca susceptible de constituir una unidad registral independiente.

– Retranqueo del frente de la entreplanta respecto del interior de la línea de fachada: mínimo 2,50 metros.

– Altura libre mínima en la parte del local situado bajo la entreplanta: 2,50 metros.

– Altura libre mínima entre el pavimento terminado de la entreplanta y el techo terminado del local: 2,30 metros. En algún punto aislado, por la existencia de elementos colgantes de la estructura o instalaciones podrá reducirse dicha altura libre a 2,20 metros.

